

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2012-07-08

LITERATURA. HIRUDIA

Martutene

MIKEL H. ABAITUA

Donostiako Martutene auzoak leku berezia izan du euskal gatazkaren historian. Hainbat ETAKide eta ENAMkide egon dira bertako kartzelan preso. Handik ihes egin zuen 1985ean Joseba Sarrionandia idazleak Imanol kantariaren bozgorailuetan ezkutatuta. Zenbait urte geroago, 1990ean, ETAK hango presoan irakaslea hil zuen eta 1993an bertako psikologoari ere kendu zion bizia (paradoxikoki euskal presoak Euskal Herrira gerturatzeko hainbat lan egin zuen ELAko sindikalista hari).

Martutene da, halaber, Ramon Saizarbitoriaren azken eleberraren izenburua, baina ez da euskal gatazka, ordea, bere gai nagusia, askotan agertzen den arren. Hain zuzen ere, zaila egiten da esatea zein den gai nagusia liburu mardul honetan, bere ugaritasuna ikusita. Autoreak aurkezpenean erruarena aipatu zuen, eta bere aurkezleak jelsiarena. Egia da, gai horiek hor daude, hala nola medikuei buruzko begirada kritikoa, literatura (eta bereziki Max Frischen obra orokorki eta *Montauk* nobela partikulariki, Martutene bezala *M* letraz hasten dena ez halabeharrez), Euskal Herriaren historia eta kultura, 68ko belaunaldia, oraingo gizarteari buruzko gogoetak... Baina gai guztietatik garrantzitsuenak maitasuna eta sexualitatea dira ziur aski (heteroa beti Saizarbitoriaren istorioetan).

Ezin da *Martutene* irakurri donostiar idazle honen aurreko liburuak behin eta berriro gogoratu gabe. Etengabe agertzen dira bere betiko obsesioak eta kezak, hala nola betidanik laudatu duen literatura modernoa ere. Lehenengo obratik hasita.

Egunero hasten delako nobelan bezala, honetan ere bi plano nagusi txandakatzen dira etengabe, baina *Martutene*-n bien arteko erlazio eta lotura lehen unetik da agerikoa, hartan ez bezala. Bi nobeletan orainaldi gramatikaletik narratuta dago gehiena. Bi planoetako bat Julia itzultzailearen pertsonaian fokalizatuta dago (eta bere bikotea den Martin idazlearenean), eta bestea Abaitua ginekologoarenean (eta bere bikotea den Pilar medikuarenean). Bietan agertzen da neska gazte eder bat protagonista paperean (esan nahi baita azken nobelako bi planoetan, eta baita bi nobeletan ere), Lynn izeneko soziologo estatubatuarra *Martutene*-n. Lehen nobelan bezala azkenekoan ere pertsonaiei ematen zaien tratamenduak urrundu egiten ditu biak *Nouveau Roman* garbitik, biek nobela modernoaren ezaugarriak dituzten arren, edo hobeto esanda, modernistarenak, zentzu anglosaxoian, ez hispanikoan.

Ginekologoak ere agertzen dira bietan, baina diferentzia esanguratsu batekin, lehen nobelan ginekologi operazio garrantzitsuena abortatzea den bitartean (omega), azkenekoan jaiotza izango da (alfa). Horregatik, eta ez halabeharrez, Martutenen ez dugu aurkituko aurreko liburuetan bezain nabarmenki bere obra ia guztian zehar obsesiboki agertzen den heriotzaren gai existentsialista (agertzen den arren, baina Martinek idazten duen liburuan hain zuzen ere, bigarren maila narratibo batean, keinu bat balitz bezala). Saizarbitoriaren ia obra osoan dagoen begirada tragikoa desagertu egin da bere azken bi liburuetan.

Saizarbitoriaren nobelagintza bi etapa nagusitan banatu ohi dugu, kronologikoki bien artean hemeretzi urteko tarte luzea dagoelako, nahiz eta bigarren etapako lehen eleberririk (*Hamaika pauso*) hanka bat eduki lehenengoan eta beste bat bigarrean narratzeko moduari begiratuz gero. Lehen etapan Euskal Herriaren historia eta giro soziopolitikoak agertzen diren arren (gerra zibila, diktadura frankista, estatuaren indarkeria, borroka armatua...), eta gizon-emakumeen arteko maitasun eta sexu harremanak aztertzen badira ere, askoz garrantzitsuagoak izango dira bigarren etapan (non maitasuna infidelitate bihurtzen den oso maiz). *Martutene*-n, gainera, bikote baten gorabeherak ez, baizik eta birenak agertzen dira, edo hobeto esanda, hirurenak, Harri irakasleak duen garrantzia ahaztuko ez badugu. Baina nobela honetan euskal gatazka gai nagusia ez izan arren, askotan oso presente badago ere (musikako *baxu etengabe* bat bezala), garrantzitsuagoa da Euskal Herria bera, bere kultura, bere berezitasunak, munduan aipatua izateko modua, hala nola bere hizkuntza eta ohitura soziologikoak. Esan genezake nobelako narratzailea ez ezik autore empirikoa bera ere Euskal Herriarekiko maitasunak larriki zaurituta dagoela. Nahita eginda ez badago ere, oso baliagarria izango da Lynn neska gazte soziologo amerikarra itzulpenetarako, berari Euskal Herriko gauza guztiak esplikatu behar zaizkiolako, eta bide batez, irakurle guztiei, eta hori bitarteko garrantzitsua izango da nobela hau erdara ezberdinetan irakurriko dutenentzat.

Geure burua, Euskal Herria eta giza harremanak hobeto ulertzen asko laguntzen duen nobela bikaina da *Martutene*, bere argumentu itzuli-mitzuli, suspense eta ustekabe guztiekin.



Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 Entziero garbia burutu dute El Pilarreko zezenek
- 2 Europako Giza Eskubidean Auzitegia 'Parot doktrinaren' aurka azaldu da
- 3 Espetxe politika gehiago "gogortuko" duela iragarri du Espainiako Gobernuak
- 4 "Idazten baldin badut, kultura gubitu batean borroka egin beharra egokitu zaidalako da"

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L**
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa



Laguntzaileak:

